

# HARA! GASTEIZKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO POLITIKETAN SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA TXERTATZEKO 2024KO AGENDA

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

| 1. ILDOA. BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. PROGRAMA. GENERO-BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA** | | | | |
| **1.1. HELBURUA: GASTEIZKO UDALAK HARTUTAKO KONPROMISO POLITIKOA IKUSGAI EGITEA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| **JARDUKETAK** | Batzorde Politikoari, udal-zerbitzu eta -sailei eta Berdintasunaren Elkarguneari aurkeztea *Hara! Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2024ko Agenda*. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Batzorde Politikoari aurkezpen-saioa: Bai/Ez<br>• Informazioa jaso duten sailen/zerbitzuen kopurua eta ehunekoa<br>• Elkargunean informatutako pertsona kopurua |
| | Udalak sexu- eta genero-aniztasunarekin duen konpromisoa adieraztea, maiatzaren 17ko adierazpen instituzionalaren bidez. | **ARDURADUNA** | Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila | • Adierazpena eginda: Bai/Ez<br>• Adierazpen instituzionala ikuspegi feminista instituzionaletik egin da |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua | |
| **1.2. HELBURUA: GENERO-IKUSPEGIA ZEHARKAKOA IZATEA BERMATZEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK SORTZEA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| **JARDUKETAK** | Aurrekontu egokia onestea eta Berdintasun Zerbitzuari programazioan jasotzen diren konpromisoak eraginkorrak izateko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak ematea. | **ARDURADUNA** | Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila | • Guztira bideratutako aurrekontua (€)<br>• Berdintasun Zerbitzuan dauden pertsonen kopurua |
| | *Hara! 2023ko Agendaren* jarraipena eta ebaluazioa egitea. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Jarraipena eginda: Bai/Ez<br>• Ebaluazioa eginda: Bai/Ez |
| | *Hara! Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2024ko Agenda* diseinatzea. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • *Hara! 2024ko Agenda* diseinatuta: Bai/Ez |
| | *Gasteizko Genero Berdintasunerako 2023-2030eko V. Plana* ezartzen laguntzea, sexu- eta genero-aniztasuna modu eraginkor eta koherentean txerta dadin. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Sexu eta genero aniztasunari buruzko |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | neurrien ehunekoa<br>• Planean ikuspegi feminista intersekzionala duen sexu eta genero aniztasuna txertatzen da |
| | Eskatzen duten udal-zerbitzu eta -sailei sexu- eta genero-aniztasunari buruzko aholkua eta laguntza espezializatua ematea. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Egindako aholkularitza kopurua<br>• Aholkularitza eskatu duten zerbitzuen kopurua |
| | Politikariei sexu- eta genero-aniztasunari buruzko bost orduko prestakuntza ematea. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Prestakuntza-orduak<br>• Parte-hartzaile kopurua<br>• Balorazio egokiak (8/10 eta 10/10 bitartean) |
| | Gizarte-zerbitzuetan sexu- eta genero-aniztasunari ematen zaion arretari buruzko diagnostikoa egitea | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | •2024rako aurreikusita dauden ikerketa prozesuaren faseak amaituta<br>•Prozesuaren balorazio egokiak |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Gizarte Politiken Saila | |
| | Udal webgunean eta zerbitzuen katalogoan prozedurari alta ematea, Estatuko Administrazio Orokorrarekin koordinatuta, hala nahi duten trans herritarrek beren izena alda dezaten HUTean (Herritarren Udal Txartelean). | **ARDURADUNA** | Herritarrei Laguntzeko Zerbitzua | • Prozedura alta emanda: Bai/Ez<br>•Egindako aldaketen ehunekoa |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua | |
| | Genero-arrazoiengatiko lan-osasunerako arriskuei buruzko ikastaro bat diseinatzea (sexu-orientazioa eta genero-identitatea barne), Arriskuen Prebentzioko langileei eta sindikatuei zuzendua, lotutako arrisku psikosozialen azterketari helduz eta Osasunaren Zaintzari buruzko gai espezifikoak garatuz. | **ARDURADUNA** | Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua | • Ikastaroa diseinatuta: Bai/Ez<br>• Ikastaroa ikuspegi feminista intersekzionalarekin diseinatu da |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua | |
| **2. PROGRAMA. UDAL-LANGILEAK BERDINTASUN-ARLOAN PIXKANAKA GAITZEA** | | | | |
| **2.1. HELBURUA: UDAL-LANGILEAK BERDINTASUNAREN ARLOAN PRESTATZEA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| JARDUKETAK | Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza ematea:<br><br>- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko hastapen-ikastaro bat, ikuspegi hori txerta dezaketen funtzioak beren gain hartzen dituzten udal-langileei zuzendua.<br><br>- Politika publikoetan sexu- eta genero-aniztasuna aplikatzeko ikastaro bat, hastapen-prestakuntza egin duten langileei zuzendua.<br><br>- Sexu- eta genero-aniztasuna kulturaren esparruan nola txertatu azaltzen duen ikastaro bat | **ARDURADUNA** | Funtzio Publikoaren Saila | • Prestakuntza-orduen kopurua<br>• Parte-hartzaileen kopurua<br>• Balorazio egokiak (8/10 eta 10/10 bitartean)<br>•Politika publikoetan sexu eta genero aniztasuna txertatu duten zerbitzuak |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua | |
| **2.2. HELBURUA: UDAL-LANGILEAK INDARKERIA MATXISTAN GAITZEA, DETEKZIOA AURRERATZEKO ETA ESKU-HARTZEA HOBETZEKO** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| JARDUKETAK | Laneko jazarpena, sexu-jazarpena, jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpena eta sexu-orientazio edo genero-identitate eta -adierazpenagatiko jazarpena prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko Gasteizko Udalaren Protokoloa zabaltzea. | **ARDURADUNA** | Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua | • Protokoloa zabaltzea: Bai/Ez<br><br>•Protokoloa aktibatu den aldi kopurua |
| | | **LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua | |
| **3. PROGRAMA. LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA** | | | | |
| **3.4. HELBURUA: KONTRATAZIOAN, DIRULAGUNTZETAN ETA HITZARMENETAN BERDINTASUN-IRIZPIDEAK EZAR DAITEZEN SUSTATZEA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| JARDUKETAK | Genero-berdintasunari buruzko klausula Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko hitzarmenetan sartu den aztertzea | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Klausula duten hitzarmenen kopurua, hitzarmenen kopuru osoarekiko |
| **4. PROGRAMA. SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA** | | | | |
| **4.1 HELBURUA: SAILEN ARTEAN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN KOORDINATZEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, UDALEAN GENERO-BERDINTASUNA EZARTZEKO** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| JARDUKETAK | Sexu- eta genero-aniztasunari buruz aholku ematea eskatzen duten udal-zerbitzu eta -sailei. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Aholkatutako zerbitzu kopurua<br>• Zerbitzuei aholkularitza emateko ordu kopurua<br>•Politika publikoetan sexu eta genero aniztasuna txertatu duten zerbitzuak |
| **3. ILDOA. AHALDUNTZE FEMINISTA** | | | | |
| **9. PROGRAMA. AHALDUNTZE FEMINISTA SUSTATZEA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| **9.2. HELBURUA: SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA IKUSGAI EGITEA** | | | | |
| JARDUKETAK | Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko 20 tailer antolatzea, Udal ludoteken sarearekin elkarlanean:<br>-10 tailer ludohandin (4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat)<br>-10 tailer ludoklubean (9 eta 12 urte bitarteko haurrentzat) | **ARDURADUNA**<br><br>**LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua<br><br>Udal ludoteken sarea | • Memoria eginda: Bai/Ez<br>• Parte-hartzaile kopurua<br>• Gizarte-etxeen kopurua<br>• Balorazio egokiak<br>•Datorren urtean tailerrei jarraipena emateko interesa azaltzen da |
| | SGA sustatzeko eta LGTBIfobiaren aurka sentsibilizatzeko bi jarduera sartzea gutxienez #FeminismoanItzel prestakuntza-ildoan (Jabetze Feministarako Eskolan 18 urtetik beherakoei bideratutako ildo estrategikoa da #FeminismoanItzel). | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Jarduera kopurua<br>• Parte-hartzaileen kopurua<br>• Balorazio egokiak (8/10 eta 10/10 bitartean) |
| | Berdintasun Zerbitzuaren buletinean “Desirak Plazara” atala elikatzea eta, hor barruan, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko albiste bat sartzea gutxienez. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Berdintasun Buletinak SGAri buruzko albisteak jasotzen ditu sistematikoki.<br>• Sexu eta genero aniztasunari buruzko berri kopurua |
| | “Sexu-joera eta genero-identitatea” web-atala elikatzea, agenda honetan biltzen diren proiektuetatik sortzen diren askotariko edukiekin. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Web-atala berrikusita eta eguneratuta |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiatzaren 17a oroitzea, LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna baita. (1. Jabetze Feministarako Eskolaren esparruan programazioa diseinatzea eta 2. Urteko ikusgaitasun- eta salaketa-kanpaina diseinatzea). | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Oroimen-jardueren kopurua aurreko urtekoaren berdina edo handiagoa da.<br>• Programazioa diseinatzen jarraitzen da ikuspegi feminista intersekzionalarekin.<br>• Kanpainaren hedapena mantentzen da hiri mailan. |
| **9.3. HELBURUA: AHALDUNTZE FEMINISTA BULTZATZEA HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN SEXU-HEZIKETAREN BIDEZ** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| **JARDUKETAK** | Sexu-hezkuntzari buruzko estrategia integral bat diseinatzea eta abiaraztea ikastetxeetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza), hezkuntza-komunitateari bere curriculumean zeharka txertatzeko tresnak eta gaitasunak emateko. | **ARDURADUNA**<br><br>**LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua<br><br>Hezkuntza Zerbitzua | • Estrategia lantzea: Bai / Ez<br>• Parte-hartzaile kopurua<br>• Ikastetxe-kopurua<br>•Sexu heziketa ikuspegi feminista intersekzionalarekin lantzen da<br>•Ikastetxean sexu-hezkuntza transbertsala bihurtzeko oinarriak ezarri dira<br>• Balorazioa egokia izan da |
| | Sexu-hezkuntzari buruzko prestakuntza, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei, irakasleei eta GEei zuzendua (tailerrak eta aholkularitza-zerbitzua), "Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea" programaren barruan. | **ARDURADUNA**<br><br>**LAGUNTZAILEA** | Berdintasun Zerbitzua<br><br>Hezkuntza Zerbitzua | • Prestakuntza kopurua<br>• Parte-hartzaile kopurua<br>• Ikastetxe-kopurua<br>•Sexu heziketa ikuspegi feminista intersekzionalarekin lantzen da<br>• Balorazioa egokia izan da |
| **4.ILDOA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA** | | | | |
| **10. PROGRAMA. INDARKERIA MATXISTA (SEXISTA ETA LGTBIFOBIKOA) IKERTU ETA PREBENITZEA ETA HORREN INGURUAN SENTSIBILIZATU ETA TREBATZEA** | | | | |
| **10.1. HELBURUA: INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETAN ETA DATU-BILKETAN AURRERA EGITEA, GENERO-IKUSPEGITIK ABIATUTA** | | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **JARDUKETAK** | *Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen 2023ko txostena* egitea eta zabaltzea. | **ARDURADUNA** | - Gizarte Politiken Saila<br>- Udaltzaingoa<br>- Berdintasun Zerbitzua | • Urteko txostena egitea: Bai / Ez<br>• Urteko txostenak udal-webgunean argitaratzea: Bai / Ez<br>• LGTBI-fobiari aurre egiteko ekintzak identifikatzen dira |
| | Ikusgune - LGTBIfobiaren aurkako behatokiaren hitzarmena kudeatzea. | **ARDURADUNA** | Berdintasun Zerbitzua | • Hitzarmena berritzea: Bai/Ez |
| | **10.2. HELBURUA: INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEN LAGUNTZEA, BALIOETAN HEZIZ; BATEZ ERE, NERABEEI ETA GAZTEEI DAGOKIENEZ** | | | **EGIAZTAPEN-TRESNA** |
| **JARDUKETAK** | Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko *Libre izan nonahi!* estrategiaren barruan sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea. | **ARDURADUNA** | - Gizarte Politiken Saila<br>- Udaltzaingoa<br>- Berdintasun Zerbitzua | • Egiten diren ldaketa kopurua<br>•SGA ikuspegia txertatuta: Bai/Ez |
| | | **LAGUNTZAILEA** | - Gazteria Zerbitzua<br>- Hezkuntza Zerbitzua<br>- Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua<br>- Gizarte Politiken Saila<br>- Beste zerbitzu batzuk | |